


Udalak web orri berria estreinatu du

Ezkabarteko Udalak, ANIMSAren (Udal Informatikaren Nafarroako Elkarte) bitartez, web orri berria estreinatu du. Aurrekoaren estilokoa da, baina erakargarriagoa, erosoagoa, eta auzoko guztien zerbitzura.

Bertan gauza asko kontsulta daitezke: Ezkabarten izanen dugun eguraldia, ordenantzak, aktak, gertakariak, azken berriak edo abisuak, besteak beste. Espazio berri bat ere inauguratu da: **Alkateak erantzuten du** izenekoak, non herritarrek galderak egin edo iradokizunak ematen ahalko baitituzte. Atal horren barruan, Udalak jasotako mezuak argitaratzeko eta laburbiltzeko ahalmena gordetzen du beretzat.



www.ezcabarte.es



2014ko iraila
[40. zenbakia]

Udal Informazio Aldizkaria



Trafikoa arautzen duen ordenantza

Ezkabarteko Trafikoa arautzen duen Ordenantza 2014ko 79. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, apirilaren 24an, argitaratu eta biharamunean sartu zen indarrean.

Sen ona, hezkuntza eta errespetua kontuan harturik, eta auzokoen bizikidetzaren alde, Ordenantza berriaren zenbait puntu, kontuan hartu beharrekoak, azpimarratzen ditugu:

- ▶ Zehapena jarriko da ibilgailuak Ezkabarteko bide publikoan edo edozein ibai, erreka, iturri edo ikuztegiren ondoan garbituz gero.
- ▶ Zehapena jarriko da, halaber, ibilgailuak bide publikoan konpontzen badira, olioia aldatzen bada...
- ▶ Gai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek debeku dute Ezkabarteko herrietako hiriguneen barnean zehar ibiltzea.
- ▶ Arau orokorra izanen da 3.500 kg-tik goitiko BGPa duten ibilgailuek debeku izatea udal mugapeko bide guztietan aparkatzea.
- ▶ Karabanak eta atoiak aparkatzeko beharrezkoa izanen da udal organo eskudunaren baimen berariazkoa eskuratu eta lurzoruaren aprobetxamendu bereziaren prezio publikoa ordaintzea.
- ▶ Debeku da arras karabana, atoi eta etxebizitza-ibilgailuetan bizitzea udal mugapearen barrenean, salbu eta horretarako egokitutako tokietan, halakorik bada.



- ▶ Eremu publikoan edozein gauza jartze-ko, Udalaren baimena beharko da.
- ▶ Debeku da arras zirkulazio seinaleak paratzea, aitzinetik Udalaren baimena izan gabe.
- ▶ Inolaz ere ez da baimenduko publizitate zirkulazio seinaleetan edo haien ondoan jartzea.
- ▶ Ibilgailu abandonatuak kalean luzaroan eta mugagabeko epean egon ez daitezten, Udalak ibilgailuaren erregistroko titularrari jakinaraziko dio hura ustez abandonatua dagoela, eta bost egun naturaleko epea izanen du egokituz jotzen dituen alegazioak aurkezteko. Ibilgailuak arriskuren bat sortzen badu, bertatik kentzen ahalko da eta, gero, titularrari jakinaraziko zaio.

Erabat debekaturik dago gelditzea:

- ✗ Babeslekuetan, erdibitzaileetan, oinezkoen eremuetan.
- ✗ Seinaleak ongi ikustea eragozten den tokietan.
- ✗ Minusbaliatuek bertze inork ez erabiltzeko seinalatutako tokietan.
- ✗ Zaborrontzien ondoan, zabor bilketa galaraziz edo oztopatuz.
- ✗ Espaloietan, pasealekuetan, oinezkoen alderdietan eta lorategietan.

Halaber, zehapena jarriko da:

- ✗ Seinalizaturiko zebrabideetan edo ezinduendako espaloietan izaten diren beheraguneetan geldituz gero.
- ✗ Erabiltzeko baimendutako orduen barranean pasabide bat osorik edo zati batean okupatzen duenean.
- ✗ Garraio publikorako geraleku seinalatu eta mugatu batean aparkatua dagoenean.
- ✗ Bidean doazen gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea eragozten dienean.
- ✗ Eraikin bateko sarrera osorik nahiz zati bat oztopatzen duenean...

Diru zehapenarekin batera, gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko zehapena ere jaso dezakete arau-hausteengatik irekitako zehapen espedienteek, eta eskumena duten udal organoek tramitatu eta ebatziko dituzte. Ondotik, agintari eskudunari igorriko zaizkio.

Informazio hau guztia eta gehiago hemen kontsulta daiteke:

www.ezcabarte.es



LANGILEEN KONTRATAZIOA

Udalak interes handia erakusten du Nafarroako Gobernuak ematen dituen diru-laguntzei dagokienez, horrela ibarreko langabetuak Zerbitzu Anitzek egiten dituzten eginkizunetan laguntzeko kontratatzen ahal baitira. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzen babesean kontratazioak egiteko, izangaiek haietan xedatzen diren beharkizun eta baldintzak bete behar dituzte. Une honetan Udalak lau pertsona ditu kontraturik bi diru-laguntza ezberdinen bitartez. Horietako bi zerbitzu anitzetako langileekin batera ibarreko herrietan obra txikiak giteaz ari dira

arduratzen. Beste alde batetik, beste bi pertsona daude amankomunaturik ditugun Gizarte Zerbitzuen bitartez kontraturik, diru-laguntza dela medio. Gure helburua da lan aukerak eskaintzea eta egoera ahulenean egon daitezkeen pertsonen laguntzea.

Gogoarazten dugu Udalak enplegu poltsa duela eta bertan ibarreko auzoko interesdun guztiek eman dezaketela izena. Kontratatzeko langileak behar dituen edozein enpresa Udalarekin harremanetan jar daiteke eta eskaturiko profila duten pertsonen curriculumak emanen zaizkio. ■

LOEEren ONESPENA

Ezkabarteko Udalak, ekainaren 5eko osoko bilkura arruntean, Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Ereduaren dokumentua onetsi zuen. LOEE behin onetsita, Udala Udal Plana prestatzeko faseaz arduratuko da, bertan zehaztuko baitira estrategia horiek eta lurzoruaren kategoriak eta azpikategoriak lurraldearen errealitatera doitu. ■

Bidexkak

Ezkabarteko Udalak eskaturik, SIGI-SAGA lurralde azterlanetarako enpresak ibarreko bide-sareari buruzko azterlan bat eginen du, helburuak hiru eremutara bideratuta:

❁ **Ondarea:** bide zentsu bat egitea, bide-sareari lotutako ondare material eta ez-materiala ezagutu eta hari balioa emateko.

❁ **Mugigarritasuna:** bertako populazioaren mugigarritasun jasangarria eta herrien arteko loturak hobetzeko analisia, diagnostikoa eta proposamenak.

❁ **Aisia eta turismoa:** ibilbideen diseinua eta zabalkunderako elementuak prestatzea, bertako eta kanpoko populazioarentzako aisialdiko eskaintza handitzea ahalbidetuko dutenak.

SIGI-SAGA enpresak bertako populazioari inkestak igorriko dizkio proiektuaren berri emateko eta laguntza eskatzeko, bereziki ibarra ezagutzen duen adineko jendeari. Horren helburua da adinekoek naturguneaz, ondareaz, istorioez eta kontakizunez, bide-sarearen erabilerez, tradizioez... duten ezagutza berezkoa proiektuari gehitzea.

Udalak aldeaz aurretik eskertzen du laguntza, eta parte-hartzera eta kolaboratzera animatzen du, denon artean proiektu honek ikuspegi globalago eta integratuagoa izan dezan.



Elkartasunezko tapoiak

Udalak, ibarrean zehazturiko guztiarekin, **elkartasunezko tapoiak** biltzen jarraitzen du.

Urte oso batean zehar Nerearentzat bildu dira eta hari eman zaizkio. Printzipioz, ez dute gehiago bildu behar. Nerearen gurasoek gure ibarreko auzoko guztienganako nahitasun, txera eta begirunea erakutsi dute, haiek azaldu-tako laguntza eta eraspenagatik. Gure udalerriko erantzuna oso positiboa izan denez, erabaki dugu tapoi gehiago biltzen jarraitzea, oraingo honetan PABLOrentzat.

Pablo Barañaingo lau urteko haurra da, sortzez garun-paralisia jasaten duena. Helburu garbia du: plastikozko 60 tona tapoi urtean erdiestea, bere tratamendua eta errehabilitazioa Pisako (Italia) zentro batean finantzatu ahal izateko. Modu bakarra du etorkizunean berez baliatu ahal izateko. Medikuek posibilitate hori %80koa izan daitekeela diote. Haren familiak finantzatzen zuen errehabilitazioa baina dagoeneko ez dute horrelako aukerarik.

Edozein tapoi balio du, betiere plastikozkoa bada.

Ahalegin txikiaren bitartez, jende askori pixka bat zoriontsuago izaten laguntzen ahal diogu.



Diru-laguntzak musika eskolako ikasleentzat

Ezkabarteko Udalak, aurtengo otsailaren 6an egindako osoko bilkuran, Iruñerriko musika eskoletako ikasleei diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onetsi zituen.

Oinarriak eta eskabidea Udalaren webetik behera kargatzen ahal dira edo Udaletxean bertan jaso.



DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO BALDINTZAK:

- Nafarroako Gobernuak baimendutako eta hala erregistratutako musika eskola bateko edo Kontserbatorioko ikaslea izatea.
- Ezkabarten erroldatua egotea, deialdia argitaratu baino urte bete lehenago, gutxienez.
- Aurreko ikasmaila gainditua izatea, salbu eta ikasle berria bada.
- **Aurkeztu beharreko agiriak:**
 - ▶ Diru-laguntza eskatzeko eskabidea, beharrezkoak diren datuak azalduta.
 - ▶ Eskolaren agiria, matrikulaturik dagoela eta klaseetara normaltasunez joaten dela ziurtatzen duena. Orobat, ikasleak ikasmaila gainditu duela ziurtatzen duen agiria edo notak ekarri behar dira.
 - ▶ 2013ko errenta aitortpena, eskaera gehiegi izanez gero.

ESKATZEKO EPEA: IRAILAREN 15A ARTE

PUBLICIDAD

128 x 94 cm



Ezkabarteko gizarte eta artisautza azoka

Joan den ekainaren 8an Ezkabarte ibarreko lehendabiziko gizarte eta artisautza azoka egin zen Soraurenen. Lehendabiziko esperientzia horrek arrakasta handia izan zuen, bertaratutakoen aldetik, baina, batez ere, parte hartu zuten artisauen elkarlan, laguntza eta bizikidetzarengatik.

Udan zehar, azoka Arre, Azotz, Orikain eta ibarreko beste herri batzuetara joan zen.

Auzokoek bultzaturiko ekimen honek Ezkabarte ibarreko kontzejuen eta Udalaren sostengua du.

→ **Helburua.** Helburua hau da: Ibarreko bizilagunen bertako ekonomia bultzatzea eta auzoko guztiak, batez ere langabetuak, azokan artisau gisa parte har dezaten animatzea.

Urtean zehar jarraitutasuna eman nahi diogu eta, bizi dugun egoera ekonomikoaren alternatiba gisa, diru-sarrera iturria sortu.

→ **Baldintzak.** Ibarreko auzokoa izatea eta zehartasun politikorik ez izatea.

→ **Postuak.** Postu guztiak artisau lanenak edo eskuzko sormenenak dira:

egur zizelkatzea, zaharberritzeak, kosmetika naturala, pintura, zapitxoak, larrua, gomazko erraldoiak, teila bidezko apaintzea, argizarizko tulipak, produktu begetarianoak, bigarren eskuko produktuak, trukea... Ez da artekaririk onartzen.

→ **Tailerrak.** Mugarik gabeko Ingeniaritza elkarteak haurrak sentiberatze-ko tailer bat antolatu zuen, gaur egun funtsezkoa den gaian: elikadura-buruja-betza, alegia. Bertan txotxongiloak, ipuin kontalariak, ginkana... izan ziren

→ **Soziala.** Azokan biltzen den diruaren zati bat, urte bukaeran, Ibarreko familia behartsuenetara bideratuko da. Ekintza hori Udalak eta gizarte zerbitzuek gauzatuko dute eta Azokaren antolatzaileek gainbegiratuko dute.

→ **Antolakuntza parte-hartzailea.** Antolakuntza borondatez eta irabazi-asmorik gabeko auzoko talde batek gauzatu du. Erabakiak bileretara bertaratutakoen artean hartzen dira.

→ **Filosofia.** Herri ekimen hau beste norabide eta alor batzuetan lan egiten duen filosofiaren barrenean dago. Funtsa da bertako ekonomia sustatzea tokitik bertatik jasangarri eta askiagoa izan dadin.

Azokan ekintzetara iragatea erabaki dugu, mugitzea, gaurko egoera aldatu eta denontzat etorkizun duinagoa eraikitzen hastea.





Giro ederra ibarreko jaietan

Ezkabartekoek, berriro ere, Ibarreko jaiez gozaten jakin izan dute. Aurten, Azotzen ospatu dira, ekainaren 28 eta 29an.

Larunbat goizean, txikienek ederki gozatu zuten; aberen arteko eguna izan zen. Azotzen abeltegi bat bisitatu zuten, bildots baten jaioa, artzain-zakur baten erakustaldia.... ikusteko parada izan zuten. Eskerrik asko Adelardo, emandako adierazpenengatik, zure denboragatik, zure amultsutasunagatik. Hamaiketakoa, zaldi txikiak, puzgarriak, II. Paella Erraldoia, eguneko agendako ekitaldiak izan ziren, nahiz eta eguraldia lagun ez izan.

Ilgandean, urtero bezala, gure nagusientzako omenaldia izan zen. M^a Josefa Istilartek ez zuen etortzerik izan baina aukokide guztiek maitasun osoz gogoratu zuten. Oroitzapen ederra Francisco Arrarásentzat ere, familia osoaren izenean bere bilobetako batek eskaini zizkion hitzengatik. Gose-pizgarria eta dantzak Azotzen. Ondoren, ospakizun orotan bezala, herri bazkaria eta emakumeentzako



aitorpen hunkigarria, batez ere garai zailetan familia aurrera ateratzeko lan eta borroka egin zutenentzat. Horiek guztiak ordezkatuz, Consolación Sanz Elizagaray omendu zuten, borroka, eskaintze eta eskuzabaltasunaren eredurik onena baita.

Ezin hutsik egin EZK txarangak sorturiko giroa. Luxua da Joseluk zuzenduriko neska mutiko horiek gurekin edukitzea, joaten diren toki orotan alaitasuna eta besta turrustan transmititzen baitituzte. Lucianorekin egindako dantzaldia, atzoko, gaurko eta betiko gaiekin, onena izan zen besta, alaitasun eta batasuneko asteburua ixteko.

Eskerrik asko jaiak eta ekitaldiak burutzea posible egin duzuen denoi, batez ere Azotz Kontzejuari eta bertako lehendakariari.



kudeaketarekin jarraitzen du

Aurtengo abuztuaren 7ko ohiko bileran, Udalak onetsi zuen BPXport enpresak Ezkabarteko Udal Kiroldegiko kudeaketarekin jarrai zezan. Enpresa horrek kontratuari dagozkion zenbait aldaketa bere egin ditu.

Kiroldegiko ordutegi berria honako hau izanen da:

- ▶ Astelehenetik ostiralera, 9:30etik 13:30era eta 16:00etatik 21:30era.
- ▶ Larunbatetan, 9:30etik 14:00etara.
- ▶ Igandeetan, jaiegunetan eta uztaileko lehendabiziko hamabostaldian, itxita.

Ezkabarteko Udalak Urdi aurreko enpresa kudeatzaileari ematen zion konpentsazio ekonomikoa 100.000 euro ingurukoa zen. Joan den urtean, kontratua BPXport enpresa berriarekin sinatzean, diru-kopurua nabarmenki jautsi zen, 48.000 eurotara,

alegia, eta zenbateko hori mantentzen da gaur egun.

Udalak BPXport enpresarengandik jasoko duen urteko kanonari (6.000 euro) dago-kionez, kiroldegiko inbertsioren batean erabiltzen ahalko da. Hori bien artean adostu beharko da eta ez dago inolako beharkizunik Udalaren aldetik.

Kontratuak, hasiera batean, 4 urteko indarraldia izanen du, sinatzen denetik, hots, 2013ko maiatzaren 13tik aurrera kontaturik. Epea urtez urte luzatzen ahalko da, hamar urte egin arte, bertan dela hasierako epea, alderdien adostasunez ezarritakoa. Lehendabiziko bi urteak probaldikoak izanen dira eta alderdie-tako edozeinek bere aldetik kontratua ebazten ahalko du.

Horrela bada, 2014/2015 ikasturtean Ezkabarteko auzokoek Kiroldegiak eskaintzen dizkigun zerbitzu eta jardueraz gozatu ahal izanen dute, ahaztu gabe AVANCE-EZCABARTE Kirol Klubak entrenatzen dituen futbol esperantza gazteak, horiek instalazio horietan entrenatzen eta partidak jokatzen jarraitu ahal izanen baitute.

Instalazioan abonatzeko tarifak

	TARIFA MOTAK	KUOTA/HILEKO
URTEKO ABONATUA	Erretiratuak eta >60	10,40 €
	16-64 urte	17,20 €
	10-15 urte	10,40 €
	4-9 urte	8,60 €
FAMILIAKOA	Helduak,	kuota arrunta
	9 urtetik beheiti,	doan
	10-15 urte bitarteko seme-alabak,	%50
	3. seme-alaba edo 15 urte bitarte	doan

TARIFA ETA PREZIOAK KIROLDEGIKO BULEGOAN **948 33 07 58**

• EZKABARTEKO KIROLDEGIAK • ZUZENDURIKO JARDUERAK 2014-2015 •

HELDUAK	TALDEAK		PREZIOA	
	EGUNA	ORDUAK	Abonatu eta/edo errolaturikoen prezioa	Abonatu edo errolaturik ez daudenen prezioa
Pilates	Astel.-Astzk.	18:30-19:30	103 € (11,45€/hilabeteko)	206 € (22,90€/hilabeteko)
		19:30-20:30		
	Astear.-Ost.	9:30-10:30		
		18:00-19:00		
Indoor zikloa	Astel.-Astzk.	10:00-11:00		
		18:30-19:30		
		19:30-20:30		
	Astear.-Ost.	18:00-19:00		
		19:00-20:00		
		20:00-21:00		
Zumba	Astel.-Astzk.	10:00-11:00		
		18:15-19:15		
	Astear.-Ost.	18:15-19:15		
Ariketa abdominal hipopresiboak	Astel.-Astzk.	20:30-21:30		
	Astear.-Ost.	11:30-12:30		
Body Tonic	Astear.-Ost.	10:30-11:30		
		19:00-20:00		
Aerobica	Astear.-Ost.	20:30-21:30		
Dantzak	Astear.-Ost.	20:00-21:00		
Yoga	Astzk.	19:15-21:15		
Gimnastika 3. adina	Astear.-Ost.	9:30-10:30		

HAURRAK				
Adierazpena eta mugimendua	Astel.-Astzk.	17:15-18:15	81,50 € (9,05€/hilabeteko)	163 € (18,10€/hilabeteko)
Haur Dance (7-12 urte)	Astear.-Ost.	17:00-18:00		
Dance Urban Style (13-18 urte)	Astear.-Ost.	19:00-20:00		
Sormen tailerrak euskaraz	Larunb.	10:30-12:30		
Sormen tailerrak ingelesaz	Larunb.	10:30-12:30		

► **Tokia:** ■ KIROLDEGIA | ■ ARRE

► **Izen emateak:** Irailaren 9tik 19ra. 012 telefonoaren bidez. Txartela bidezko ordainketa.

► **Iraunaldia: Hasiera:** 2014ko irailaren 22a → **Bukaera:** 2015eko ekainaren 30a

→ PISTA ETA PILOTALEKUAREN ALOKAIRUAK

ALOKAIRU TARIFAK:	Ordu 1 + argia	Ordu 1 argirik gabe	Hilabetea	Hiruhilekoa
KIROLDEGIKO PISTA	35,00 €	25,00 €	128,00 €	374,50 €
PILOTALEKUA	15,00 €	7,50 €	48,00 €	141,00 €
PRESTAKUNTZA GELA	11,00 €	<i>Eta kiroldegiko abonaturia bazara, ASTEAN PISTA EDO PILOTALEKUA ORDU BATEZ DOAN erabiltzen ahal duzu</i>		
ERABILERA ANITZEKO GELA	15,00 €			

Kiroldegian abonaturiko pertsonak, ikasturte osoan zehar, honako DOAKO JARDUERA ZUZENDU haez gozatu ahal izanen dute:

JARDUERA	TALDEAK		TOKIA
STRETCHING	E-G	11:30-12:00	KIROLDEGIA
	G	9:30-10:00	
CARDIOBOX	E-G	20:00-20:30	
ABDOMINAL EXPRES	E-G	20:30-21:00	



AVANCE-EZCABARTE K.K. Futbito eskola

AVANCE-EZCABARTE K. Klubak antolatzen duen Futbito Eskolan izena eman nahi duten 5 urtetik 13ra bitarteko haur guztiak *Alimentación Arren* edo telefonoz **-626 541 388** (Felix)– egin beharko dute.

Lehendabiziko harremana, denontzat, **irailaren 10ean, asteazkenarekin, 17:30ean**, izanen da, Udal Kiroldegian.

Udalak eskainitako tailer eta jarduerak

Udal honek antolatzen dituen tailer eta jardueretan izena emateko egunak hauek dira: **irailaren 9tik 23ra** (biak barne), 012 telefonoaren bitartez. Inskripzioaren ordainketa txartelaren bitartez eginen da, telefono bera erabilia.

IKASTAROA	NORK EMATEN DU	EGUNA	TOKIA	ORDUAK	PREZIOA
KOSMETIKA NATURALA	<i>Patri Bañuelos</i>	Asteazkena	Arre	18.00etatik 20.00etara	58 € Errold./ 116 € Erroldatu gabeak
EGUR ZIZELKATZEA	<i>Mikel Oquiñena</i>	Ostirala		19.00etatik 21.00etara	
INGELESA (haurrak)	<i>Ioanne Zaratiegui</i>	Osteguna		17.30etik 19.00etara (de 6 urtetik 9ra) 19.00etatik 20.30era (9 urtetik gora)	68 € Errold./ 126 € Erroldatu gabeak
INGELESA (helduentzat)	<i>Itziar Ancín</i>	Asteartea	18.00etatik 20.00etara		
ARTISAUTZA	<i>Conchi Lorenzo</i>	Osteguna	17.00etatik 20.00etara		
ESKULANAK	<i>Maru Gutiérrez</i>	Ostirala	Sorauren	17.00etatik 20.00etara	91 € bakarrik erroldatuztat
EUSKARA (helduentzat)	<i>Ika – Atarrabia</i>	----	Atarrabia	Maila eta taldearen arabera	



SORAURENGO EL MEDIO KALEA

Ekainean hasi ziren Soraurengo El Medio kaleko konpontze eta zolatze lanak. Hnos. Lacunza enpresa arduratu da obrak egiteaz. Iruñerriko Mankomunitateak Ezkabarteko Udalarekin hitzarmen bat sinatu du ur eta saneamendu sareak berritzeko.

Zolatutako azalera handituko da ibilgailuak hortik iragan eta biraketa egin ahal dezaten. Zolaketaren bitartez galtzadaren eremua eta espaloia berriziko dira, sestra bera mantenduta eta ertzik gabe. Jarduketa eremuko argiteria publikoaren kanalizazioa berritu eta telefoniarren obra zibila egitea aurreikusi da. Goiko aldeko eskailera kenduko da kalea zabaltzeko eta aparkalekuak egin ahal izateko. Aurreikusi da urrirako lanak bukatuak izanen direla.

EGOKITZAPENA ARREKO IRUN ETORBIDEKO TARTE BATEAN

Aurreikusita zegoen bezala, uztailaren 31n hasi ziren Ezkabarteko Udalak Arreko Irun etorbidean, ATP enpresaren parte hartean, gauzatu nahi zituen lanak, oinezkoentzat horren desatsegin eta arriskutsua den tarte hori pertsona eta bizikletetarako berdegunedun pasealeku bihurtze aldera.

Construcciones Lacunza enpresa izan da obrak gauzatzeko arduraduna. Honako lan hauek egin dira: espaloi eta areketa-tik hormigoia altxatu da, saneamendua, ureztaketa eta argiteria sarea sartu da eta lorategi eremua egin da. Lorategiaren barruan hiri tresneria instalatzea aurreikusi

da atsedeen eremu bat sortzeko. Hainbat solasaldiren ondoren, obren parean kokaturik dagoen ATP alumbrado público enpresak, argiteriaren bideratze berriaren ardura hartu du, eskuzabalki, eta pasealeku berriari argia emanen dioten kale-argiak paratuko ditu.

Plaza berria Zildozen

Zildotz herriak, ekainean, bertako jaien karira, Ezkabarteko Udalak gauzatutako plaza berria inauguratu zuen. Diseinua Javier Oficialdegi arkitektoarena da eta Construcciones

Merino Arregui enpresak burutu du. Esparru berriak Zildozenko elizaren ondoko lurzattia, hautsikinetan zegoen eraikin bat, gero eraitsia izan zena, zeukan hori okupatu du. Auzokoen parte-hartzeak sustaturik, diseinuan zenbait aldaketa egin dira, besteak beste, mendebalderantz plaza luzatzeko elizaren aurrealdearekin jarraitzeko aurreikusitako harmailak partez diedro edo angelu batez ordeztu dira, pilotaleku txiki bat osatzeko. Oinezkoentzako sarbideak eta berdeguneak egin dira, mota batzuetako zuhaitzak hartzen ahal dituztenak, eta eraikitako espazioari beste itxura bat eman zaio: garbia, zabala eta atsegina.



Posta zure etxera behar bezala iristen al da?



Urtero bezala udan, arazoak sortzen dira posta banatzearekin, ordezkapenak egiten dituzten pertsonak, zenbait kasutan, postontzirik ez dagoela eta helbide okerra dela ikusten baitute. Gainera, ez dituzte auzokoak ezagutzen.

Horregatik, Ezkabarteko Udalak, auzoko guztiak, bereziki herri txikienetako auzokoak, bertan suertatzen baitira banatze arazo handienak, honako hau egitera premiatzen ditu:

- ▶ Etxe guztiek, posta jasotzeko, postontzia izan beharko dute.
- ▶ Atari edo etxe partikular guztietan zenbaki zuzena eta kaleari dagokiona agerian egon beharko da.
- ▶ Herri batzuetan kaleen izenak aldatu dira. Hori dela eta, helbide berria jakinarazi beharko diete bidezko iruditzen zaien entitateei, adibidez, bankuei, telefonia konpainiei, Iruñerriko Mankomunitateari, Osasun Etxeari, etab.
- ▶ Helbidea eman behar denean, azpimarratu zein den Ezkabarteri dagokion posta kodea (31194), helbidea zein herriri dagokion ahaztu gabe.

Jarraibide horiek garrantzizkoak dira oso posta gure etxeetara arazorik gabe iritsi dadin, eta horrela postan izandako okerrak, atzerapenak eta itzulketak saihesten ahalko ditugu.



Ezkabarte kutxazain automatikorik gabe gelditu da

Uztailaren 1az geroztik, Ezkabarte Ibarreko auzokoak kutxazain automatikoren zerbitzurik gabe gelditu ziren.

2009ko abuztuan inauguratu zen Nafarroako Rural Kutxak Arreko Irun etorbidean jarritako kutxazain automatikoa. 5 urte iraganik, ez besterik, entitate horrek berak erabiltzaile guztiak zerbitzurik gabe utzi ditu. Rural Kutxak argudiatu du jasaten ari diren doikuntzengatik izan dela. Izan ere, Ezkabarten eskaintzen zuten zerbitzua ez omen zen errentagarri, oso jende gutxi erabiltzen baitzuen.

Alkatetza hau beste entitate batzuekin bitartekari lana egiten ari da Arren beste kutxazain bat jardunean izateko Ibarreko auzoko guztien eskura, erosotasunez.

Jaiotzak

Beti izaten da poz ikaragarria umetxo bat jaiotzea; horregatik, hartu gure Zorionak eta ongietorria:

Amaia Irribarren Lecumberri (Sorauren), Guillermo Vera Palacio (Arre), Noa Trujillo Chafee (Azotz), Victor Barrio Calvo (Arre), Daniel Cruz Jorrin (Arre), Noa Michel Rivera (Arre), Odei Lopez Echauri (Azoz), Nahia Paternain Juanenea (Azotz), Jakes Aiciondo Faus (Sorauren), Arturo Landa Pereira (Azotz), Sayoa Landa Pereira (Azotz), Garazi Francisco Sanchez (Arre), Mara Garcia Alzueta (Azotz), Maily Pinzon Tirapu (Arre)

Heriotzak

Gure oroimenean daude:

Jesus Cadena Ibañez (Azotz), M^a Antonia Santos Carrasco (Arre), Oscar Gerónimo Iturri López (Arre), Gonzalo Lopez Alonso (Arre)
Jose Martín Molto (Sorauren)

Telefono interesgarriak:

Ezkabarteko Udala (Orikain)	948 330 341
Kexak eta iradokizunak	012

Bidez Osasun Etxeak (Arre)	948 332 335
Ezkabarte kiroldegia (Azotz)	948 330 758
Publizitatea Aldizkarian	948 248 324